



## “Zenbat eta talde ezezagunagoi buruz hitz egin, orduan eta ‘guay’-agoa zara”

Arkaitz Villar | **Moderno multimedia**

Gaztea irratian dabil (*Kalefonia* eta *Global Funk*), EITB.com-eko ziber-langilea da, *The Balde* eta *Entzun* aldizkarietan idazten du... eta gainera Oñatin jaio zen.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Iñigo Azkona

### Gertatu al da zerbait interesgarririk 2000. urte-tik hona?

Zerbait? Gauza asko esango nuke nik, gehiegi agian: Paco Rabanne-k esan ez bezala mundua ez da amaitu, Sarkozy eta Carla Bruni ezkondu egin ziren eta Angelina Jolie-k dio bere haurrak direla-eta ezin duela Brad Pitt-*ez gozatu*. A... eta Errealak 100 urte bete ditu, tumatxa!

### Euskal elektronikaren eszena, adibidez, hurrengo menderako utziko dugu...

Inoiz egon al da eszenarik ala? Donostiarrak hasitako lana *bilbainoek* jarraitu dute, badirudi neoizko doinuen euskal eszena datorren mendea baino gertuago dugula. Hala ere, zineman gertatzen den moduan, Dj eta musikari gehienek kanpora jo dute.

### Triki-poteo bat ezin da agertu “joera” aldizkari batean?

Fermin *tío*, *guay* izan nahi dugu, ez al zara konturatu ala? Eta badakizu, zenbat eta talde ezezagunagoi buruz hitz egin, orduan eta *guay*-agoa zara. Ez dago *Berriako* zure zutabea irakurtzea besterik. Hala ere, telebistaz hitz egiten zenuenean gustukoago zintudan.

### Gazte-gaztea zinenean Cancer Moon bezalako taldeen kontzertuak antolatzen zenituen. Horri esker eman al zizuten lana Gaztea irratian?

Azkenean Gaztea esan duzu Euskadi Gaztea beharrean, asmatu duzu behingoz. Ez hori bakarrik, askotan jarri ditut, gazte izaten jarraitzen dudan honetan, Cancer Moon, Dut, El Inquilino Comunista edo Lord Sickness bezalakoak, nahiz eta gutxi batzuk bakarrik konturatu.

### *Kalefonia* irratsaioa egiten duzu orain Maider Segurolarekin. Ezagutu nahi nuke zuen gidoigilea, transmititzen duzuen tentsio sexuala dela eta...

Gidoigile gehiegi ditugu tentsio sexual honi buruz hain erraz hitz egiteko. Gure erredakzioan denek ligatu nahi dute Maiderrekin; inork ez nirekin, pisu guztia Maiderrek darama beraz. Berak dio jada anaia bat bezala naizela berarentzat; nireak egin du!

### *Global Funk* izeneko jai ibiltaria ere hilean behin antolatzen duzu, euskal metropolietan barna.

Euskal metropolian zehar antolatzen ditugun *global funk* festa horiek global ostian ez bilakatzeko esperantzarekin antolatzen ditugu.

### Hasieratik zaude Eitb.net-en. Ondo al doa negozio hori?

Ez, ez nago hasieratik Eitb.com-en. Lan egiten duzun etxearen web helbidea behintzat ondo ikasi, etorkizun hurbilean agian behar duzu eta...

### Eitb.net arrakastatsuago izan dadin txutxumutxu blog monografikoa ireki zenezake, eta erosoena izango zaizu norbera bilakatzea egile zein protagonista!

Txutxu-mutxu blog monografikoa baino zuzenean blog horia egingo dut, azken aldian Maiderrengana gehiegi gerturatzen ari zara eta jeloskor jartzen hasia nago. Badirudi horren gustuko duzun tentsio sexualak harrapatu zaituela, ez ni harrapatu gero! ■